

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

171/2019 Foru Agindua, uztailaren 3koa, interes publikoa aitortzen diona Aiarako udalerriko Menoio herriko 5 poligonoan, 2277 zenbakiko lurzatian, lurzoru urbanizaezinean, telefonia mugikorreko deien banagune bat instalatzeko proiektuari

Telefónica Móviles España SAK Aiarako Udalari obra baimena eskatu dio telefonia mugikorreko deien banagune bat eraikitzeko, zeina 40.00 m-ko sareta-habeko dorre batez osatua egongo baita eta zeinaren gainean ipiniko baitira erradiazio sistema eta barruan telekomunikazio tresneria edukiko dituen aire zabaleko bastidore bat, horiek guztiak 3.50x4.50 m-ko hesi perimetral baten barruan kokatuta, Menoio herriko 5 poligonoan, 2277 zenbakiko lurzatian.

Aiarako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen osagai da Menoio 0100509 telefonia mugikorreko deien banagunea ezartzeko proiektu tekniko ikus-onetsia, baita udal arkitektoak emandako txostena ere. Hartan adierazten da lurzatia baso lurtzat kalifikatutako lurzoru urbanizaezinean dagoela, udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioetan xedatutakoaren arabera. Araudi horretako 144. artikuluan, baimendutako erabilera gisa jasotzen dira onura publikoko eta gizarte intereseko azpiegiturak, horietan baldintza jakin batzuk betetzen badira.

Proiektuaren deskripzio memorian adierazten da, halaber, PEBA edo Banda Zabala Hedatzeko Programaren barruan dagoela, eta horren helburua dela abiadura handiko eta oso handiko banda zabaleko zerbitzuak gaur egun estaldurarik ez duten eta, aurreikus daitekeenez, hurrengo urteetan ere izango ez duten eremuéi emateko gauza diren komunikazio elektronikoko sareen estalduraren hedapena azkarragotzea. Gobernu Kontseiluaren martxoaren 22ko 143/2016 Erabakiaren bidez, onetsi zen AFAREN 2015-2019 legegintzaldirako Plan Estrategikoa. Horren barruan, lerro estrategiko hau zehazten da: "7.4.2 Araba Konektada programa abian jartzea. Guztientzako estaldura Arabako landa ingurunean".

OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berriaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogeit egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Maiatzaren 13ko 115/2019 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onepena ematea eta jendaurrean ipintzeko 20 eguneko epea hastea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Argitalpena 2019ko 60. zenbakian egin zen, maiatzaren 24an. Horretarako emandako epearen barruan, ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorrak 2. artikuluan ezarritakoaren ondorioz datorkio interes publikoa aztertutako kasuari. Artikulu horretan ezartzen denez, "Telekomunikazioak interes orokorreko zerbitzuak dira eta lehia askearen araubidean ematen dira". Bestalde, 34.2 artikuluan hau xedatzen da: "komunikazio elektronikorako sare publikoak oinarritzko ekipamenduak dira (...). Haiek jartzea eta hedatzea interes orokorreko obrak dira".

Azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurretan. Horiek horrela, Aiarako udalerriko arau subsidiarioen 145. artikulua ("Eraikuntza erabilera eta jardueri esleitutko hirigintza parametroak") honako hauek jasotzen ditu 1.e) apartatuan: "Landa eremuan kokatu behar diren onura publikoko eta gizarte intereseko eraikinak", eta 3 apartatuak: "Telekomunikazio ekipoak edo antenak edo antzekoak edozein lurzoru motatan jarri ahal izango dira, aldez aurretik onura publikoa edo gizarte interesa aitortu bazaie".

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Telefónica Móviles España SAK sustatutako eta Aiarako Udalak izapidetutako proiektuaren interes publikoa aitortzea. Proiektua honetan datza: telefonia mugikorreko deien banagune bat ezartzea Menoio herriko 5 poligonoko 2277 lurzatian, lurzoru urbanizaezinean (baso lurtzat kalifikatua), udalerriko arau subsidiarioetan ezarritakoaren arabera, eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal baimena lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Interes publikoa aitortzeak ez du administrazio bidea amaitzen, ez eta hark aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik. Udalak, dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, baimena emateko edo ukatzeko hartzen duen ebazpenaren aurka bakarrik jarri ahal izango da errekurtsioa.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 3a

Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO